



PILOTA ESKOLA

2017-2018 ikasturtea (aurre izen-ematea)

Kaixo, familiak:

Aurreko urteetan ez bezala, aurten aurre izen-ematea egingo dugu, datorren urteko ikasturtea hobeto antolatzeko asmoarekin. Horretarako, erantsita doakizuen fitxa bete eta helbide honetara bidali behar duzue eibarkopilotaeskola@gmail.com , edo entrenatzaileari eskura eman.

Pilota Eskolan izena emateko honako baldintza hauek bete behar dira:

- Eibarko Klub Deportiboko bazkidea izan behar da umea (6 euro urtean). Bazkidea ez denak fitxa bat bete eta entrenatzaileari eman beharko dio. Bazkide denak ez du fitxa hori bete beharko.
- Eibarko Udal Kirol patronatuko bazkidea izatea derrigorrezkoa da.
- Urteko kuota ordaindu beharko da (40 euro urtea; ordainketa bakarra egingo da ikasturte hasieran).

ENTRENAMENDU EGUNAK ETA ORDUTEGIA

- 2010-2009 urteetan jaiotakoak: astearte eta ostegunetan, 17:00etatik 18:00etara.
- 2008-2007. urteetan jaiotakoak: astearte eta ostegunetan 18:00etatik 19:00etara.
- 2006-2005-2004 urteetan jaiotakoak: astelehen eta asteazkenetan, 18:00etatik 19:00etara.
- 2003 urtekoak edo zaharragoak: astelehen eta asteazken 17:00etatik 18:00etara.

BESTELAKO OHARRAK ETA BETEBEHARRAK

- Pilota-saioetako sarrera-irteerak familiaren ardura izango dira; eta umeek ezingo dute frontoitik irten entrenatzaileen baimenik gabe (mesedez, ordutegien inguruan edo bestelakoetan ezer berezirik bada, jakinarazi iezaiozue entrenatzaileari).
- Tarteka, egingo diren ekintzen argazkiak aterako ditugu. Norbaitek bere seme-alabaren argazkiak ateratzeko baimenik ematerik ez badu nahi, jakinarazi Pilota Eskolako arduraduneri mesedez. Argazkiak hedabideetan ekintzen berri emateko, familiekin partekatzeko edo pilota-eskolaren blogean zintzilikatzeko izango dira.
- Oharrak eta jakin beharrekoak emailez jakinaraziko dira, fitxan idatzitako emailera.



- Aldaketarik ez badago, bi txapelketa jokatuko direla aurreikusi da. Bata Amañako Txapelketa eta San Juan txapelketaren finala. Amañako txapelketa maiatzeko larunbatetan jokatuko da. Dena dela, jakin bi txapelketetan parte hartzea borondatezkoa izango da, eta aurretik jakinaraziko dizkizuegu jardueren nondik norakoak.

PILOTA ESKOLA

2017-2018 ikasturtea (aurre izen-ematea)

Bete, mesedez, honako datuok, eta entrenatzaileari eman. Eskerrik asko!

IKASLEAREN IZEN-ABIZENAK	
JAIOTZE-DATA	
GURASOEN EDO TUTOREAREN IZENA ETA TELEFONOA	
EMAILA (ABISUAK EMAILEZ BIDALTZEN SAIATUKO GARA)	
KIROLDEGIKO KARNETAREN ZENBAKIA	
EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO BAZKIDE ZARA?	<input type="checkbox"/> BAI; DAGOENEKO BANAIZ <input type="checkbox"/> EZ; BAINA ORAIN BETE DUT FITXA ETA ENTREGATU.
ARGAZKIAK ATERATZEKO ETA ESKOLAKO ERABILERETARAKO BAIMENA EMATEN DUZU?	<input type="checkbox"/> BAI; BAIMENA EMATEN DUT <input type="checkbox"/> EZ; EZ DUT EMATEN BAIMENIK EMATEN, ETA EZ DUT ARGAZKIRIK JASOKO.



Eibarko Klub Deportiboa
Club Deportivo Eibar

Eibarko Pilota Eskola
Klub Deportiboa